


Merkatuko zerbitzuen salmentak % 5,8 murriztu dira 2020ko lehen hiruhilekoan Euskal AEn

Sektoreko enpleguaren atzerakada % 0,3koa izan da 2020ko lehen hiruhilekoan

Merkatuko beste zerbitzu batzuk (aurrerantzean, Merkatuko zerbitzuak) epigrafean bildutako sektoreek % 5,8ko beherakada izan dute salmentetan, aurreko urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, termino errealetan eta egutegiaren ondorioak behin kenduta, Eustaten datuen arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zerbitzu horien salmentak % 7,0 murriztu dira, prezio konstanteetan eta urtaroen ondorioak ezabatu ondoren.

Koiuntura-indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. Bestelako merkatu-zerbitzuak. (%)



Merkatuko zerbitzuen barruan, salmenta errealean urte arteko atzerakada orokorra da. Nabarmenezkoa da Ostalaritza-sektoreko salmenten beherakada, non % 14,2ko jaitsiera aurreikusten baita. Atzetik datoz Administrazio-jarduera eta zerbitzu osagarrien salmenta-indizea (% 5,0ko jaitsiera), Garraio- eta biltegiatze-indizea (% 4,2ko jaitsiera), Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen indizea (-% 3,3 urte artean) eta, azkenik, Informazioaren eta komunikazioen sektorearena (% 0,7ko murrizketa). Hori guztia, aurreko urteko lehen hiruhilekoaren aldean eta behin zuzenduta egutegi-ondorioak.

Lurraldeen arabera, eta prezioen eta egutegiaren eragina kenduta, Araban urte batetik bestera % 4,2 jaitsi da salmenta-indizea, Bizkaian % 5,8 eta Gipuzkoan % 6,5.

Euskal AEko Merkatuko zerbitzuetan okupatutako langileen indizea % 0,3 jaitsi da urte arteko aldian. Aurreko hiruhilekoaren aldean jaitsiera % 1,1ekoa da.

Euskal AEko zerbitzuen koiantura-indizea. Bestelako merkatuko-zerbitzuak. Prezio finkoak. Behinbehineko datuak. I/2020

	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	-5,8	-7,0	-5,8
Garraioa eta biltegiatzea	-4,2	-4,1	-4,2
Ostalaritza	-14,2	-16,6	-14,2
Informazioa eta komunikazioak	-0,7	-0,5	-0,7
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-3,3	-2,1	-3,3
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-5,0	-6,5	-5,0
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba	-4,2	-7,6	-4,2
Bizkaia	-5,8	-6,4	-5,8
Gipuzkoa	-6,5	-7,8	-6,5
ENPLEGUA	-0,3	-1,1	-0,3

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiantura-indizea

COVID-19AREN KRISIAK ZKI-N DUEN ERAGINARI BURUZKO OHARRA

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu du **COVID-19ak** eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.

Hartutako salbuespenezko neurrien ondorioz, martxoaren bigarren hamabostaldian zerbitzu-sektoreko enpresa asko partzialki edo erabat geldiarazi dira. Beraz, salbuespenezko egoera horrek eragina izan du lehen hiruhileko honetako Zerbitzuen koianturako indizeari dagokion aldiaren seigarren batean.

Egoera horrek ekarri du Zerbitzuen koianturako indizea egiteko behar den informazioa lortzeko beharrezko ahalegina handitu izana, hala inkestatutako enpresen aldetik nola informazioa biltzeaz eta tratatzeaz arduratzen diren langileen aldetik.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten enpresa guztiei egindako ahaleginagatik aparteko baldintza hauetan. Haiei esker, 2020ko lehen hiruhilekoko indizea laginaren % **83,30eko estaldurarekin** kalkulatu da (laginaren informazioa gehienbat apirilean jaso da).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62